

IL AZALPEN PROBA • *Amaia Lapitz - Erregina gorriaren hilobia*

Kodea* Taldea

*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300** bat hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

–Esaten dute beste nonbait hil zutela, eta gero piramidearen oinetara eraman zutela, auskalo zertarako...

Zer egin zezakeen Amaiak? Begiak itxita eta belarriak tapatuta igaro bertan eman beharreko egun guztiak? Baina emakumeek –berritsuak biak– egunkaria alde batera utzi eta hilketaren gaia ez zuten aipatu ere egin: eguraldiari eta hegazkin-bidaiari buruz baino ez zioten galdetu, irribarrea galdu gabe. Eta Amaiak bihotzez eskertu zien. Azkenik, bi gizon gazte eta ilehori sartu ziren jantokian. Kamiseta zurien gainean Press zioen txartel bat zeramaten zintzilik. Amak bi hauek ere agurtu zituen, bostekoa luzatuz eta hitz batzuk ingelesez trukatur.

–National Geographic-eko kazetariak dira –azaldu zion amak beren gosarien bila alde egin zutenean–. Erregina Gorriari buruzko erreportaje bat ari dira grabatzen, telebistarako. Agian niri ere elkarrizketa egingo didate!

–Eta zer da Erregina Gorria, zehazki? –galdetu zuen Amaiak orduan.

–Hau da hau, orain nire lana interesatzen zaizu!

–Zure lanean lagundu behar badizut, zer edo zer kontatu beharko didazu! –esan zuen berak serio.

–Hori da, Susana, azalduiozu neskatilari –esan zuen burlati emakume irribarretsuetako batek.

–Ondo da, kontatuko dizut, baina hartuidazu beste mango zuku bat, mesedez.